

AKTA ESKOLA KIROLA

BILERAREN XEHETASUNAK

Bilera zenbakia	4/2016	Lekua	udaletxea
Bilera mota	ohikoa	Hasiera ordua	17:00
Data	2016-04-12	Amaiera ordua	18:45

BERTARATUTAKOAK	Izen-abizenak
Udal ordezkariak	Esti Aldeiturriaga
Elizatxo ikastolako ordezkariak	Julen Goia Tere Gainza
Langile ikastolako ordezkariak	Eli Lizaso Itziar Santamaria
Astigarragako Herri Eskolako ordezkaria	Rafa Zuza
Urumeako ordezkaria	Ander Gutierrez
Idazkaria	Manuel Aierbe

GAI-ZERRENDA:

- 1.- Aurreko akta onartzea: 2016-03-15
- 2.- Errugbia.
- 3.- Astigarragako frontoia.
- 4.- Atletismoko jardunaldia 2016-05-21etik 2016-05-07ra pasatzea.
- 5.- Koordinatzaileen funtzioak.
- 6.- Eskaerak eta galderak.

- 1.- Aurreko akta onartzea: 2016-03-15

2016ko martxoaren 15ean egindako bileraren akta onartu egin da.



F:\manolo-a\WORD\
e-1\2015-2016 ikasta

2.- Errugbia.

Azken bileran erabaki zen hurrengo kurtsorako errugbia kirol berezi moduan tratatzea. Errugbiko klubarekin adostuko dira datorren kurtsorearen baldintzak, entrenamenduetako egunak, kuotak, monitoreak, e.a. Horretarako, ikastetxeen koordinatzaileak klubarekin elkartuko dira.

Kurtsoa hasi baino lehen, bilera bat egingo da gurasoei azaltzeko baldintza guztiak, entrenamenduko egunak, bidaiak, kuotak, e.a.

3.- Astigarragako frontoia.

Astigarragako frontoia arazorik gabe erabili daiteke egutegia aldez aurretik pasatzen bada. Ikasleen kopurugatik Hernaniko frontoia eskasa gelditzen bada, Astigarragakoa erabiliko da.

4.- Atletismoko jardunaldia 2016-05-21etik 2016-05-07ra pasatzea.

CDH elkarteak aurten 75. urtemuga ospatuko du. Hori dela eta, eskatu dute eskola kiroleko atletismo jardunaldia beraiek prestatzen ari diren ekintzekin batera egitea maiatzaren 7an. Onartu egingo da baldin eta programaren edukiak egokiak badira.

5.- Koordinatzaileen funtzioak.

Koordinatzaileen funtzioei buruzko ekarpenak datorren bilerarako ekarri behar dira.

6.- Eskakerak eta galderak.

- **Esti:** Inmaculada ikastetxeak sinatuko du eskola kiroleko programa bateratua eramateko konpromisoa. Momentu honetan bi pertsona daude gurasoen elkartean eta beraiek bakarrik ezin dute gaia eraman, eta ikastetxean irakasleen betebeharrak berrantolatu behar dituzte.

Urumea ikastetxeak aipatutako konpromisoa sinatuta dauka, baina bai ikastetxearen presentzia, baita gurasoena ere beharrezkoa dela ikusi da. Dirudienez, beraien artean programari buruzko debatea dago, derrigortasuna, e.a.

Apirilaren 26an egingo den plenoan Udalak onartuko du eskola kiroleko programa bateratua.

Eskola kiroleko proiektua aurrera eramateko laguntza behar dela ikusi da. Horretarako, laguntza Beterri agentziari eskatuko zaio.

- **Eli:** datorren kurtsoko izen-emate orria prestatu behar da. Zirriborro bat prestatuko du.

Hurrengo bilera: maiatzaren 10ean, 17:00etan.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitu egin da. Eta horrela jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, honako akta hau egin dut.

Hernanin, 2016ko apirilaren 12an